

## **Auzo batzarrak aurpegi garbiketa egiteko erabili izana salatu du EH Bilduk**

*Nagore Gomara: "Parte hartzea bermatzen duten baliabideak jarri behar zaizkie herritarrei eskura, eta ez trabak eta oztopoak; eta auzo batzarren bitartez, herritarren kezkek eta beharrak identifikatu beharko genituzke geroko aurrekontuetan islatu ahal izateko".*

Laudio, 2021.11.05. Urriaren 19an ekin zion, berriro ere, auzo batzarrak ospatzeari Ander Añibarro Maestre buru duen udal-gobernuak, eta azaroaren 3an bukatu da hasitako prozesua. Bitartean, eta auzo gune guztietako foro parte hartzaile hauetan jasotako kezkek eta iradokizunak entzun gabe, aurrekontuen proposamen zirriborroa jorratu eta landu izana leporatu dio EH Bilduk udal gobernuari. *"Gure ustez, lehenengo pausu batean, herritarren iritziak, beharrak eta kezkek entzun behar dira, eta horrekin guztiarekin, ondoren, aurrekontuen proposamen zirriborroa landu, eta ez, alderantziz"* adierazi du Gomara zinegotziak. Izan ere, EH Bilduko zinegotziak herritarren ekarpenak jasotzeko epea abuztuan zabaldu zuela gogoratu dio EAJ-PSEri, gaineratuz uda tarteko hilabete hori txarrena dela hain estrategikoa den prozesu horietarako.

Bestalde, eta aforoa kontrolatu ahal izateko, herritarren parte hartzea posible egiteko izena eman behar izatea kritikatu du koalizioak. Zentsu horretan, pasa den urriaren 25ean ospatutako Osoko Bilkuran, EH Bilduk galdetu zion udal gobernuari zergatik mantentzen duen neurri hau Eusko Jaurlaritzak bertan behera utzi dituen aforoaren baitan hartutako neurri murriztaile guztiak. Era berean, eta urteetako prozedurari eta ohiturari jarraituz, koalizioak proposatu eta gomendatu zion alkateari haurtzaindegi zerbitzua eta bandoen erabilera sustatzen jarraitzea auzo batzarren deialdiak iragartzeko. *"Modu horretan batetik, kontziliazioa eta bestetik, herritar guztiei deialdia heltzen zaiela bermatzen da, eta arrakala digitalaren baitan sortutako desorekak saihesten ditugu. Adinduek zailtasunak izaten dituzte baliabide elektronikoak maneiatzen, eta herritar guztien esku jarri behar ditugu parte hartzea bultzatzeko erraztasunak"* gaineratu du Nagore Gomarak.

## **EH Bildu denuncia el uso de las asambleas vecinales como un lavado de cara**

*Nagore Gomara: “Hay que poner a disposición de la ciudadanía recursos que garanticen su participación, no obstáculos y barreras; y a través de las asambleas vecinales deberíamos identificar las preocupaciones y necesidades de la ciudadanía para poder reflejarlas en la elaboración de los futuros presupuestos municipales”.*

Laudio, 05.11.2021. El pasado 19 de octubre, el gobierno municipal, presidido por Ander Añibarro Maestre, retomó la celebración de las asambleas vecinales, que finalizaron el 3 de noviembre. Mientras tanto, y sin escuchar aún todas las necesidades y sugerencias recibidas de todos los barrios, EH Bildu acusa al gobierno municipal de haber trabajado y elaborado ya de antemano una propuesta de los presupuestos. *“Pensamos que, el primer paso es escuchar las opiniones, necesidades e inquietudes de la ciudadanía y, con todo ello, después elaborar ese borrador de propuesta, y no a la inversa”*, ha manifestado la concejala Gomara. De hecho, la concejala ha recordado también a EAJ-PSE que el plazo para recoger las aportaciones de la ciudadanía lo abrió en agosto, añadiendo que este mes, con el verano por medio, es el menos apropiado para este tipo de procesos tan estratégicos.

Por otra parte, y con el fin de controlar el aforo, la coalición critica la obligatoriedad de tener que inscribirse para posibilitar la participación ciudadana. A este respecto, en el pleno celebrado el pasado 25 de octubre, EH Bildu preguntó al gobierno municipal por qué mantiene esta medida cuando el Gobierno Vasco ha suspendido ya todas las medidas restrictivas adoptadas en relación al aforo. Asimismo, y siguiendo el procedimiento y costumbre de los años anteriores, la coalición propuso y recomendó al alcalde continuar con la utilización del servicio de guardería y el uso de bandos para anunciar las convocatorias de las asambleas de barrio. *“De esta manera, por un lado, se garantiza la conciliación y, por otro, que la convocatoria llega a toda la ciudadanía, y evitamos las desigualdades generadas en el seno de la brecha digital. Las personas mayores tienen dificultades en el manejo de los medios electrónicos y debemos poner a disposición de todos los y las audioarras facilidades que fomenten la participación”*, ha añadido Nagore Gomara.